LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZI **saski-naski** IKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·

# ERAKUSLEIHOA

NARRATIBA

## 'Mecanografiak'




Harkaitz Cano. Hitzaurrea: Irati Jimenez. Txalaparta. 296 orr. 19 euro.

### Canoren mundu literarioa

Euskal literaturaren azken hamarkadetako erreferentzia nagusienetakoa eta gure literaturako ipuingilerik oparoenetakoa da Harkaitz Cano. Irati Jimenez idazleak Canok idatzitako hamarnaka ipuinen artean genero eta formatu ezberdinetako narrazioirik onenak bildu ditu, irakurlearen plazera helburu: mikroipuinak, fantastikoak, errealistak, metaliterarioak, umoretsuak, gordinak, surrealistak, satirikoak... Gure literaturak daukan idazle oparoenetariko eta trebeenetariko baten mundu literario berdingabea ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duen lana da antologia hau.

SAIAKERA

## 'Inor ez delako profeta bere mendean'




Asier Amezaga. Erein. 216 orr. 15 euro.

### Arestiren poetikaz

Gabriel Aresti etengabe azaleratzen den poeta dugu. Bere izenaren eta poemen errepika eta errepliken gaineko hausnarketa plazaratzen du saiakera honek. Denboran jauziak eginez, hainbat gertakizunen mapa zabaltzen du. Horretarako, Arantzazuko Batzarra, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena, 'Euskaldunon Egunkaria'-ren itxiera, Guggenheim Museoa edota Bilboko Aste Nagusia bezalakoak ditu hizpide. Asier Amezaga (Getxo, 1986) Soziologian doktorea da, eta 'Harritik herrira, Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954-2014' tesia burutu zuen EHUn.

# ZALDI EROA

